

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Forua



Aurkibidea

Udalerria: Forua

Sarrera



Busturialdeko udalerria da. Oka ibaiaren mendebaldean kokaturik dago. Elexalde herrigune nagusia da, beste auzuneak Gaitoka, Baldatika, Landaberde, Armotxerri, Urberuaga eta Atxondo dira. Udalerri hauek ditu mugakide: Murueta iparraldean; Errigoiti mendebaldean; Oka itsasadarra ekialdean; eta, Gernika-Lumo hegoaldean. Forua Bizkaiko erromatar aztarnategi garrantzitsuenetako bat da. Mendebaldeko euskararen barruan tarteko hizkeraren barruan kokatzen da forutarren hizkera.

- **Biztanleak:** 975
- **Euskaldunak:** %74,46

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **6**
- Zintak: **9**
- Pasarteak: **39**
- Transkribatutakoak: **1**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **39**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Fondo partikularrak
- IRLAren Bizkaiera Bilduma

Hizlariak



Inazio -Forua

Triñe auzokoa. Nekazaria. Aita [Felix Bilbao](#)rekin batera agertzen da grabazioetako batean.

Pedro Agustin Agirre Orue (1917-2015)



Landaberde inguruko Benta baserrian jaio zen 1917. urtean. Aita bertakoa zuen eta ama muxikarra. Bost neba-arrebatatik laugarrena eta seme bakarra izan zen. 14 urte ingurura arte herriko eskolara joan zen; eskolak erdaraz jaso arren, dotrina euskaraz ikasi zuten. Espainiako Gerra Zibilak borrokarako adinean harrapatu zuen eta alde batetik bestera aritu zen 6 urtean bi bando desberdinetan, oso ondo gogoratzen ditu zehaztasun guztiekin bertan bizi eta ezagututakoak: UGTko miliziano bezala Dimako harrobi batean, Otxandion zapadoreetan trintxerak eginez... aritu zen; Bilbon UGTko beste batailoi batera batu ziren Kantabriarako bidea hartuz; Santoñan atxilotu eta hilabetez egon ziren bertako kuartelean preso; alde batetik bestera ibili ostean, Miranda de Ebron italiar soldaduekin bat egin behar izan zuten, etapa berri honetan mandoen ardura hartuz. Bera gerran zebilen bitartean, bere etxekoek alde egin behar izan zuten errefuxiatuta; handik bueltan, etxea okupatuta aurkitu zuten eta auzoko Landaberde baserrian egon ziren. Benta baserria saldu eta "Papelerixe" izenez ezaguna den etxean eta fiolatoa zegoen etxean bizi izan ziren. San Kristobal jaietan, boxeo-lehiaketa antolatzen zuten auzoan eta Pedro Agustinek "El as de puño de Landaberde" ezizenez parte hartzen zuen. Urdaibai gazteluko [Rikarda Gastelua](#)rekin ezkondu zen; berak ere parte hartzen du lantzean behin grabaketan.

Miren Boenetxea Arrizabalaga (1934-2022)


1934. urtean Foruko Jauregizar Atzekoa baserrian jaioa. Grabazioa egin zitzaionean, 67 urte zituen.

Ezekiela Gabika-Aldekoa Arrien (1922-2017)




Gernika-Lumoko Erreterria auzoko Fondan jaio zen, gurasoek bertan baitzuten fonda. Hala ere, laster joan ziren Foruko Etxebarrira eta han hazi zen Ezeikiela. Herriz Forua izan arren, elizaz Gernika-Lumo zen beraien etxea. Aita nabarniztarra zuen eta ama Arratzuko Belendiz auzokoa. Eskola garaian antzerkia egiten zuten herrian. Gerra garaian, Gernikako bonbardaketaren ondorioz, etxea jendez beteta izan zuten Gernikatik oso hurbil baitago beraien jaiotetxea. Nabarnizko Agarre baserrira ezkondu eta han osatu zuen familia. Aurreskulari trebea izan zen gaztetan, eta plazetan jendearen arreta arin bereganatzen zuen. Gerra aurreko zein osteko Foruko eta Nabarnizko kontuak kontatu zizkigun elkarriketan.

Jose Antonio Madariaga Torrealdei (1929-2016)



Baldatika auzokoa. Hamalau urtera arte eskolan ibili zen eta hamaseirekin itsasoan hasi zen. Soldadutzara arte aritu zen. Idi-demetan ibili izan da akuilari. Bertsotan egiteko zaletasuna dauka. [Estefana Urrutia](#) emaztearekin batera egin zitzaion elkarriketa 1989an.



Estefania Urrutia (1933)

Baldatika auzokoa. [Jose Antonio Madariaga](#) senarreraekin batera egin zitzaion elkarriketa 1989an.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Aisia

1.1. Karramarro ugari

- **Hizlaria(k):** Agirre Orue, Pedro Agustin
- **Elkarriketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** FOR-002/006
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:07:33. **Bukatu:** 00:09:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
Fauna » Natura » Itsas fauna » Beste batzuk
Natura » Fauna » Errekakoak
- **Laburpena:** Karramarro asko zegoen, eta bakailao buztana erabiltzen zuten haiek harrapatzeko. Kangrejoa da errekakoa eta karramarroa ur gazitakoa. Gurdiek erreka pasatzeko Kortezubi aldera bide bat egin zen ur azpian eta "karramarroa" deitzen zioten horri. Azpigarritan joaten ziren errekaren beste aldera.

Transkripzioa

-Han, e, kangrejotan edo ibiltzen zifien?
-E?
-Kangrejotan edo zeozer harrapetan uretan?
-Ke ba! Orduen kangrejotan... bai, kangrejotan, horretan, bai karramarroak. Makailo-buztena, amarrau hori ta... ordun han ugeri egoten zan hori, karramarroa. Oin gitxiau dau, ezta? Baia orduen, puf!
-Hartzen zenduezan, orduen?
-E?
-Hartzen zenduezan?
-Bai; sarriten orduen [...] edo hori, ekarri ta bota igual.
-Emaztea: Horrek karramarruek lehen asko, oin ezta ikusten baie; asko lehen.
-Gero, ganera...izena, ez dakit hemen, burdidxek eta pasatan han beste alderdire, Kortezubi partera, karramarrue [esaeten] han, ta hantxe, en

general, nik karamarrue izena [...] han karroa pasetako bidie eindde itxosoan.

-Baia karramarroa zeri esaten jakon?

-Karramarroa horrek...

-Emaztea: Horrek, korriten dauena, lau hankakoa.

-Haurrek zelan die? Karramarroak zelan deko hori, karramarro guk [...]

-Emaztea: guk erderaz ez dakigu.

-Karramarro, ostantzien deko horrek beste izen bat.

-Ta kangrejoa zereri deittuten jako? Kangrejoa zereri?

-Kangrejoa ia ur dultzien ibiltxen da. Errekatan hor. Itxosoan ez da ibiltxen hori, ur dultzien baiño.

-Eta beste aldera joaten ziñienien, ba, nora joaten ziñien ba? Kortezubire, nora?

-Ez, gu ez giñen joaten. Han karamarrue [esaeten] lekuen dau... Hori erridxo barridxe da, ezta? Ta beste alderdire pasetako, beste alderdire pasetako hori zubidxen moduen ein eben, baie uretan azpidxen, uretatik; ta horregaittik esaten tsen karramarroa. Oin ha deseindde dau. Ha apurtute dau. Oin iñor be ez da pasetan beste alderdire. Azpigarriten joaten ziñen hara beste alderdire. Kortezubiko hori jo artien. Ha Foru de. Hori ebaitte dauelako horrek erridxo barridhek...

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Egarri eta edonon edan (FOR-002/002)

Gernikara joaten ziren errekaduak egitera eta. Bizimodua Foruan egiten zuten; han joan zen eskolara hamabost urtera arte. Bederatzietatik hamabietara zen eskola, etxera itzuli, jan eta bizkor itzultzen ziren futbolean egiteko eskolara sartu aurretik. Egarri itzultzen ziren gelara sarritan. Kanean, iturritik, errekatik edo lurreko putzuetatik edaten zuten, baina inoiz kalterik ez.

2. Bazkalorduan igerian ikastera (FOR-002/003)

Eguerdian igeri egiten ikastera joaten ziren eskolatik hurbil zegoen toki batera; eguzkitan lehortu eta itzultzen ziren, eta maisuak haserre egin arren, hurrengoan ere berdin, ikasi arte,

3. Zubi azpian erre ondoren eskolara (FOR-002/004)

Erromerietako erroka saltzaileek pipa antzeko batzuk saltzen zituzten. Zigarrokinak bildu eta horietan erretzen zituzten zubi azpian, ezkutuan, baina maisuak igarri egiten zien zertan aritu ziren.

4. Bainujantzirik ez (FOR-002/005)

Biluzik joaten ziren igeri egitera. Ur gezan kresaletan baino zailagoa da igeri egitea, baina hantxe ikasi zuten, errekan.

5. Herrien arteko mugak ibaiaren bi aldeetan (FOR-002/007)

Foruko lurak errekaen beste aldera heltzen ziren eta Kortezubirenak Elexalde ondoraino. Errekak desbideratu eta estali egin dira, eta orain ez dira hain garbi ikusten mugak.

6. Gauez angula zuria eta egunez beltza (FOR-002/008)

Angula zuria gauez harrapatzen zen; beltza, aldiz, egunez. Bahea izaten zuten makilaren muturrean angulatarako. Farola jartzen zen norbere kontra, bahea pasa eta argitan begiratu ea zer harrapatu den, eta berriz pasa. Bazeuden saltzeko aritzen zirenak, baina eurek etxerako egiten zuten.

7. Abarketak ez bustitzeko, oinutsik (FOR-002/010)

Hogeita lau edo ziren eskolan. Maisua ona zen irakasteko, baina txarra izatez. sarritan, egun bat edo bi galtzen zuten baserriko lanak egiteko. Lerro artean idazten trebea zen. Euri egunetan, abarketak erantzi eta batzuetan, egun beroetan, oinutsik oinak erre beharrean joaten ziren. Aterkirik ere ez zuten eta zakua puntaz jarri eta hark babesten zituen.

8. Eskolan erdaraz, elizan euskaraz (FOR-002/011)

Maisuak eraztuna zuen euskaraz eginez gero, zigortzeko. Garizuman, elizan, euskaraz egiten zuten. Larunbata ere eskola eguna zen. Zerrenda pasatzen zuen maisuak. Umeen artean euskaraz egiten zuten. Neskak aparteko eskolan egoten ziren.

9. Gorputza baino ez zen eramaten eskolara (FOR-002/012)

Zapatuetan eskola garbitu behar zuten. Inork ez zuen garbitu nahi eskailerapeko oilategia, lanik laburrena izan arren. Maisuak kanaberarekin jotzen zituen ipurdian edo makilarekin eskuan. Egunean ikasgai bat izaten zuten. Ez zuten ezer eramaten eskolara. Inspektorea erdaraz agurtzen ere bazekiten.

10. Muxika edo Morga inguruko hilketa (FOR-002/015)

Hilketa bat gogoratzen du: Muxikan edo Morgan ito zuten gizonezko bat. Kolpe txar bat eman ondoren edo, kaxa barruan sartu eta ito zenean, etxe ondoan lurperatu zuten, baina txakurrek aurkitu zuten.

11. Foruko etxea (FOR-002/016)

Muxikako etxea (Papeleria) nolakoa zen: lehenengo solairuan bi etxebizitza, ezker-eskuinak, behean korta eta goian ganbara.

12. Dimatik Otxandiora eta gero Bilbora gerra garaian (FOR-002/017)

Gerra garaian, Dimara zihoazela, hegazkin bat ikusi zuten erorita. Harrobian egiten zuten lan, 12 ordu; Otxandiotik Legutiorako bidea egiteko ateratzen zuten harria. Handik Otxandiora joan ziren, eta gauez lubakiak egiten zituzten. Geroago, Bilbora joan ziren beste batailoi batera. Han Gallartakoek eta, UGTkoek zuten batailoira elkartu ziren.

13. Bonbek hildako ganadua jan zuten (FOR-002/018)

Ampueron, Kantabrian, zeudela, gerezi sasoia zen; gose ziren eta baserri batean erosi zuten asto otzara bete. Herrira helduta, nazionalek plaza bonbardatzen hasi ziren, eta hantxe zegoen ganadua hil zutela ikusi zuten. Erreta jan zuten haragia.

14. Turtziozen soldadu (FOR-002/019)

Reinosara joan ziren, eta hango kuartelean egon ziren luzaroan. Handik Turtziozera itzuli ziren, harria baino gorago egon ziren. Patatak ateratzen zituzten goizaldean baratzeetan, bildotsen bat erosi eta galdarakada prestatzen zuten; egon baino ez zuten egiten. Ibaian garbitzen ziren. Santanderren egon zen preso zezen-plazan, lau bat egun.

15. Santanderren eta Santoñan preso (FOR-002/020)

Santanderren denbora gutxi egon zen zezen-plazan preso. Handik Santoñako kuartelera eraman zituzten preso; denak elkarren gaineen. Handik Santanderrera, eta han okindegi bat aurkitu eta denak sartu ziren tropelean ogia erostera.

16. Mandoak gobernatzen (FOR-002/021)

Iruñean egon ziren preso; han ondo egon ziren. Handik Mirandara eraman zituzten, italiarregana, eta han ikusi zituen inoiz baino zaldi eta mando gehiago. Handik Guadalajarako herri batera eraman zituzten; kapitain italiarrak mehatxatu zituzten. Mandoak garbitzen, jan barik izan zituzten egunetan; eskatu ondoren eman zieten. Handik Brionesera eraman zituzten, eta han nagusiek hobeto hartzen zituzten. Italiarrek eta espainiarrek banatuta jaten zuten.

17. Gerra baina jan faltarik ez (FOR-002/022)

Sarjentua baino ez zen espainiarra; gainerakoak italiarrak. Euren zeregina mandoak garbitzea eta gobernatzea zen. Pasta ematen zielako kexatu ziren. Frontera ere joan ziren. Jatekoa eta ardoa ez zitzaien falta; edateko ura falta zen. Gabonetan bi aginaldo. Katalunia aldetik Najerara; ederto ibili ziren: egunero arkume txuletak jaten zituzten.

18. Patxikoren aurrean desfilatu zuten (FOR-002/023)

Azkenean Toledora joan ziren eta han amaitu zen gerra. Hiruzpalau egun trenean Alacanterara, Mucha Miel izeneko herrira. Han azalorea jaten zuten. Handik Madrilera; desfilean hartu zuten parte. Italiara joan behar zutela esan zieten, baina, azkenean etxera.

19. Sei hilabeterako etxera, baina lizentzia iritsi zitzaion (FOR-002/024)

Luzaroan egon ziren Logroñon, deposituan. Guardia asko egin behar izan zituzten, eta gutxi janda; hasieran lortzen zuten ogia, baina gero ez. Handixik etxera itzuli ziren sei hilabeterako. Aita hirurogei urtetik gorakoa izateagatik libratzea eskatu zuen, baina ez zela posible esan zioten, bi behiren jabe zelako. Azkenerako, lizentzia iritsi zitzaion.

20. Azpirari hil-kutxa esaten zioten (FOR-002/026)

Gurasoak Sopuertara ebakatu ziren eta itzuli zirenean etxea beteta aurkitu zuten. Etxeko azpirari hil kutxa esaten zioten etxea berenganatu zuten Rojo familiakoek. Karta-jokoan ere nahi zuena egiten zuen Rojok.

21. Sei urte alde batetik bestera (FOR-002/027)

Sei urte inguru edo, egin zituen gerran. Lehenengo zapadore (lubakiak egiten) aritu zen, hainbat bermeotarrekin batera; gero, UGTko Mateos batailoian sartu zen, Santander hartu arte nazionalak. Harrezkero preso eta italiarrekin. Ordaindu egiten zioten; diru faltarik ez zuen izan gerra garaian.

22. Euskaraz egitearren, eraztuna eta zigorra (FOR-008/003)

Ume asko ibiltzen ziren eskolan. Eraztuna eta zigorra jartzen zizkieten eskolan, euskaraz egitearren. Bermeoko maistrak oinez etortzen ziren.

23. Errepidea auzolanean (FOR-008/004)

1970ean egin zuten errepidea, auzolanean.

24. Ermita eta eskola auzokoek eginak (FOR-008/007)

Ermita auzolanean eraberritu zuten. Eskola auzokoek egin zuten. Fraideek neskari politenak mojarako eramaten zituztela diote.

25. Erromerian gauerdira arte (FOR-008/008)

Erromeriatik beranduen gauerdirako etxeratzen ziren. Inguruko jai guztietara joaten ziren. Soinujolearekin edo txistulariarekin aritzen ziren dantzan. Lehen dena bekatu zela diote eta orain ez.

26. Garia ereiteari zergatik utzi zioten (FOR-008/010)

Artoa eta garia zirenez oinarritzko jakiak, ondo landu beharra izaten zen. 1969an erein zuten garia azkenekoz, gizonak lantegietan lanean hasi zirenean. Auzolanean egiten zituzten lanak, jan-edan bereziekin.

27. Sorginak barikuetan (FOR-008/012)

Barikuetan sorginak izaten zirela dio Estefaniak. Bizipen xelebrea izan zuen berak behin.

28. Tximistak sega jo (FOR-008/013)

Tximistak sega jo eta airean bota zionekoa kontatzen du Estefaniak.

29. Sorgina zelan desagertu zen (FOR-008/014)

Aitari entzundako kontua kontatzen du Jose Antoniok: jantzi zuriarekin eta kateekin agertzen zen sorginarena.

30. Eskaleak etxean (FOR-008/016)

Eskaleak eta jateko truke zetozen morroiak asko ibiltzen zirela diote. Jose Antonioren aitak etxean hartzen zituen.

31. "Jainkoari bat eman eta bost hartu" ipuina (FOR-008/020)

Pasarte barregarria kontatzen du Jose Antoniok, apaiz batek esandako "jainkoari bat eman eta bost hartu" esaldiaren ondorioz gertatutakoa.

32. Fraidea eskean (FOR-008/023)

Fraideak eskean ibiltzen zireneko pasarteak kontatzen du Jose Antoniok.

33. Ehizan larruarengatik (FOR-008/027)

Azeriak lazoarekin harrapatzen zituzten ingurukoek, larruarengatik; Jose Antoniok basakatuak eta antzekoak.

34. Euskara ikasteko derrigortasuna (FOR-008/031)

Euskara ikasteko leku gehiago eta dohainik behar direla diote. Administrazioarentzat lan egiten duten guztiek euskaraz jakin beharko luketela diote.

35. Ginearrei tratu txarra (FOR-008/037)

Ginean gizonek eta andrekin lan egiten zuten, asko biluzik. Espainiarrek han oso gaizki tratatzen zituzten langileak, esklabo moduan.

36. Idi-demetan Espainiako txapeldun (FOR-008/039)

Jose Antonio idi-probetan ibili izan da, akuilari. Espainiako txapeldun izan zen. Apustueta tranpak kontatzen dituzte.

37. Bertsotan (FOR-008/043)

Jose Antonio eta Kolesti bertsotan.

38. Bertsotan berriz (FOR-008/045)

Kolestik bertsoa botatzen dio Jose Antoniori eta honek erantzun.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-05

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com